

Landareak

Jakoba Errekondo

Txingurrien pagotxa

UGALKETARAKO “laguntzaile nagusi” titulua txingurriei ematen dien landare asko da. Mitxoletaren eta lo-belarraren, Papaverazeoen familia-kide bat bada itsaslabarretan bizi dena; hazia uretara erori gabe harkaitzetako zirrikietan ereiten diona txingurria da. Otsababek ere aspaldi egin dute intsektutxo hauekin paktua, *Helleborus sp.* jende gehienak, otsababa beltzak eta emeak, lupubelarrak, baladreak... Erromeroak ere, *Rosmarinus officinalis*, fruitu koxkorra olio gozoz biltzen du; gozoa txingurrientzat ordea, haiekin hitz hartua baitu, ordaintan, hazi-garraioa. *Hepatica* generoko gibelbelar guztiek ere jaio ordurako izaten dute beren asabek aspaldi batean txingurriein eginiko itunaren berri. Bukatzen ez den landare zerrenda jaso dago txingurrien hazien zabalkunderako hitzarmenen artxiboan: *Euphorbia* generoko tartiku eta esne-belarrak, akain- edo bakasta-belarra (*Ricinus communis*), *Lychnis*-tarrak, zaran- enada- iodo- edo ainara-bela-



FILES.MYOPERA.COM

rra (*Chelidonium majus*), ezpela (*Buxus sempervirens*), astuzkerak lubeazunak eta mandabellarren tarteriko *Centaurea* generoa, mimosa (*Acacia dealbata*)... Hitzarmenaren ondorioz, batzuentzat txingurriak ia derrigorrezko bihurtu dira. Tartikuaren haziak, adibidez, txingurrien ordainsaritarako erantsia duten bazka-koxkorra ez baldin bazaie jaten nekezago ernatzen dira. Txingurri eta landaren arteko tratuak, haziak sakabanatze soilaren arta-mugarrietatik dezente harantzago doaz. Loreak polinizatzen dituzten txingurriak ere badira. Auzolan hau toki agorretan ematen da, batik bat. Landareak tratuari ahal den etekin onena ateratzeko txingurrien lana errazten du: lorea ia lurraren pare zabalduz, nektarra eskuera jarriz, polena tamainan ekoitiz... Azken hau adierazgarria da. Txingurriei beren burua etengabe garbitzeko ohitura dute, txingurritegira gaitzik ez eramateko. Polen desdetxak txingurriei polinizazio lanari uko egitea lekarke.

%20

Ur-oporretan bapo ibili ondoren, pantailara ekarri dudan lehen txostenak ederki epeldu nau. FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak eman berria da: garapen bidean direnen munduan bost uztatik bat, %20, alferrik galtzen da. Arrazoi ugari da: euriteetan, lehorteetan edo muturreko tenperaturetan biltzea, mikroorganismo-kutsadura eta mailatu, makatu edo uspelduta jasotzea, batik bat. Gure munduan, jakiak barra-barra, parrastaka xahutzeko dugun ohiturarekin, zenbat arraio alferrik galtzen ote dugu?



JUSTINHENRY

Babeslea: Gurdy Kooperatiba Elkarte



Gipuzkoako baserritarren denda
Landare eta lore haziak, erremintak, plastikoa, botikak...



☎ 943 655 880
🕒 9:00 - 13:30
15:30 - 19:30
Larunbat goizez irekita